

IZENA:DATA:

INUITAK

MUNDUAREN IPARRALDEAN, MUNDUKO TOKIRIK
HOTZENETAN INUITAK BIZI DIRA

Alaskako, Kanadako eta Groenlandiako iparraldea da
eskimalen edo inuiten lurraldea.



Eskimal izena oso ezaguna da, baina haiek ez dute erabiltzen, iraingarria delako. Eskimal hitzak "haragi gordin jalea" esan nahi du. Horregatik ez dute izen hori onartzen. Haiek, inuit "herria edo jendea" izena gustuko dute.

Inuitak milaka urtean bizi izan dira Artikoan, elurretan eta elurrean bizimodua jasateko ezaugarri bereziak dituzte:

- Neurritz, txikiak dira.
- Gorputz indartsuak dituzte, gorputzeko beroa hobeto mantentzeko.
- Beso eta hanka motzak, ile beltza, azal iluna eta begi urratuak dituzte.
- Betileak ere lodiak dira, begiak elurretan islatzen den argitasunetik babesteko. Batzuetan, eguzki izpietatik babesteko zulo txikia duen marfilezko karatula moduko bat erabiltzen dute.

Karramarro aldizkaria 38 zk. (moldatua)

1. Munduko zein lekutan bizi dira Inuitak?

- A. Ekialdean.
- B. Iparraldean.
- C. Hegoaldean.
- D. Mendebaldean.

2. Zergatik ez zaie gustatzen eskimalak deitzea?

- A. Hitz itsusia delako.
- B. Beldurra eragiten dielako.
- C. Minduta sentitzen direlako.
- D. Haragirik jaten ez dutelako.

3. Nolakoak dira inuitak?

- A. Altuak eta argalak.
- B. Baxuak eta argalak.
- C. Altuak eta sendoak.
- D. Baxuak eta sendoak.

4. Nola babesten dituzte begiak eguzki izpietatik?

- A. Batile lodiekin.
- B. Bekain oso iletsuekin.
- C. Gaez bakarrik irteten.
- D. Eguzkitako kapelarekin.

5. Zein da testuaren ideia garrantzitsuen?

- A. Inuitak Alaskan bakarrik bizi dira.
- B. Poloan Inuitak bakarrik bizi dira.
- C. Gizakia edozein tokitan bizi daiteke.
- D. Inuitak poloan bizitzeko gorputza egokituta daukate.

6. Testu hau zertarako idatzi dute?

- A. Ipuin bat kontatzeko.
- B. Informazioa emateko.
- C. Irakurleak dibertitzeko eta barre egiteko.
- D. Idazlearen iritzi pertsonala emateko.